

Adrien Iratzoki Jauregi Zainzuri

*Azkaine,
Lapurdi*
(1931-2023)

Aurkibidea

Biografia



Saran jaioa, Azkainen bizi izan da umetatik. Aita saratarra zuen, gidaria, eta ama halsuarra, etxeko anderea. Sei senidetan bigarrena da Adrien. Zurgina da ogibidez eta kantuzalea afizioz. [Thérèse Saint Pierre](#) milafrangatarrarekin ezkondu zen, Azkainera. Lau seme-alaba izan zituzten (2 alaba eta 2 seme; Bernadette alaba ere elkarriketan izan zen).

Zintak

ANE-009

- **Proiektua:** Lierni Elortzaren fondoa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza Puiadena, Lierni - Iratzoki, Bernadette
- **Data:** 2020-02-28
- **Iraupena:** 35 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elortza Puiadena, Lierni
- **Emalea:** Elortza Puiadena, Lierni

Pasarteak

1. Mugaren alde batean zer erosten zuten eta nola pasatzen zuten

- **Erref:** ANE-009/002
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:01:55. **Bukatu:** 00:04:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- Ekonomia eta industria » Kontrabandoa
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Bentetan Larrunen, Dantxarian zer erosten zuten. Baionan saltzen zituen aitak txikoria, txokolatea (urtzen zenean gustura, hori ezin zenez saldu, haientzat izaten zelako). Estofa (oihala) ere bai, zeta Bordelen saltzen zen. Ezin mugituz, gerrian lodi bilduta pasatzen baitzuten.

2. Behiak etxean hazi, haragia idortu eta saldu

- **Erref:** ANE-009/004
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:04:45. **Bukatu:** 00:06:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Gerra denboran, astean behi bat edo bi hiltzen zituzten etxean, isilka. "Buxerak" (harakina) hiltzen zituen. Aezkoa aldetik ekartzen zituzten oinez behiak. Puskatu eta selauruan ematen zituzten idortzen, gero saltzeko, hoteletara bereziki.

3. Gaztetako bestak: ihauteriak

- **Erref:** ANE-009/007
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:07:50. **Bukatu:** 00:09:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:

<p>Ihauterietan etxez etxe, xingar eta arrautza biltzen, akordeoi musika eta astoa lagun. Antzerkiak egiten zituzten jaun erretorea buru zutelarik.</p>

4. Omiasainduz, santu guztien egunean, kuiak jendea izuarazteko

- **Erref:** ANE-009/008
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:09:21. **Bukatu:** 00:10:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Domu Santu edo Santu Guztien Eguna

Laburpena:

Kuia hustu, aho handia eta hortzak agerian eta bujia (kandela) barnean. Blantxiseriko (jantziak garbitzeko lantokia) langileei lanetik ateratzerakoan bidean jartzen zizkieten.

5. Olentzeroren kanta kantatzen du

- **Erref:** ANE-009/011
- **Iraupena:** 0:00:32. **Hasi:** 00:11:36. **Bukatu:** 00:12:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak

Laburpena:

Olentzeroren kanta kantatzen du.

6. Pilotan espartinak zulatu eta ortutsik

- **Erref:** ANE-009/012
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:12:08. **Bukatu:** 00:13:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Espartinak zulatu eta ortutsik, odoletan bukatu. Pilotak eguberriko opari, "Papa Noel"en "presenta" (oparia).

7. Buhameen mintzairan pasartetxo bat

- **Erref:** ANE-009/015
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:15:11. **Bukatu:** 00:15:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:

Buameen mintzairan esaldi parean Adrienen eta alaba Bernadettek.

8. Bestak: prestakuntza lanak

- **Erref:** ANE-009/017
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:16:25. **Bukatu:** 00:17:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Teatroa egiteko tokia prestatzeko aulkiak biltzea astoarekin. Konfetiak "poxetak" (poltsikoak) betetzen zituzten.

9. Zurgintzaz

- **Erref:** ANE-009/019
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:17:33. **Bukatu:** 00:18:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Zurgintzaz dena gustuko; egur zaharrekin aritzea nahiago.

10. Euskaraz ari ziren beti txikitan

- **Erref:** ANE-009/022
- **Iraupena:** 0:00:17. **Hasi:** 00:21:08. **Bukatu:** 00:21:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Beti euskaraz mintzatzen ziren etxean, besterik ez zekiten.

11. Euskara: toka eta noka

- **Erref:** ANE-009/023
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:21:25. **Bukatu:** 00:23:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Toka eta noka nori, noiz, norekin egiten zuten kontaktzen du. Familiako bakoitzarekiko ohiturak. Baita lagun artekoak ere. Seme-alabekin nola aritzen den ere aipatzen du.</p>

12. Herritik kanpo bentetara

- **Erref:** ANE-009/025
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:24:28. **Bukatu:** 00:25:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kontrabandoa
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Bentetara joaten zirenean han egiten zituzten salerosketak, tratuak, mokadutxoa.

13. Ateraldia ezkontzaz

- **Erref:** ANE-009/026
- **Iraupena:** 0:00:13. **Hasi:** 00:25:55. **Bukatu:** 00:26:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

Laburpena:

“Andrea eta biak noiz ezkondu ginen? egun berean”

14. "Euskaldun bat zen itsu eta bertsolari" kanta

- **Erref:** ANE-009/035
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:32:37. **Bukatu:** 00:33:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

“Euskaldun bat zen itsu eta bertsolari” bertso sortatik pare bat kantatzen ditu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com